

XXVIII. IGANDEA URTEAN ZEHAR (C)

Otoitza

Etor bekigu bidera, Jauna, zure grazia,
eta azkeneraino lagun izan dezagula,
beti ongi egiteko prest egon gaitezen.
Zure Seme Jesu Kristo.

I. IRAKURGAIA: 2 Erg 5, 14-17

*Naaman itzuli zen berriro Eliseorengana,
eta Jauna goretsi zuen.*

Erregeen liburutik

Egun haietan, jaitsi zen Siriako Naaman eta zazpi bider murgildu zen Jordanen, Jaungoikoaren gizonak esan bezala; eta haurtxo batena bezain garbi gelditu zen haren haragia. Itzuli zen berriro bere lagun taldearekin Jaungoikoaren gizonarengana eta, aurkeztuta, honela esan zion: «Orain badakit, ez dela munduan Israelgo Jaungoikoa besterik. Hartzazu, arren, zure zerbitzari honen esku-erakusti bat». Eliseok erantzun zion: «Nire Jaunarengatik! Ez dut hartuko». Naamanek hartzeko berriz ere; baina hark ezetz. Orduan Naamanek: «Ezezkoan zaudenez gero, utz iezadazu, zure zerbitzari nauzun honi, lur honetatik bi mandokada hartzen; gaurtik aurrera ez baitiot nik, zure morroi honek, Jauna ez den beste jainkori eskaintzarik ete erre-oparirik egingo».

ERANTZUN SALMOA: Sal 97, 1. 2-3ab. 3cd-4

R/. **Agertu du Jaunak atzerrien aurrean Beragandiko garaipena.**

Kanta Jaunari kantu berri,
egin baititu hainbat harrigarri.
Bere eskuinak eman dio garaipena,
bere beso santuak. R/.

Ezagutarazi du Jaunak Beragandiko garaipena,
agertu du atzerrien aurrean bere zuzentasuna.
On eta leial izan dela gogoratu du,
Israel etxeari buruz. R/.

Ikusi dute lur-muga denek,
gure Jainkoagandiko garaipena.
Lur osoa, egiozu txalo Jaunari,
egin oihu eta irrintzi, egin eresi. R/.

II. IRAKURGAIA: 2 Tm 2, 8-13

*Nekeetan irauten badugu,
errege ere izango gara Harekin.*

San Paulo Apostoluak Timoteori

Anaia maite: Gogora ezazu, Jesu Kristo Jauna, Dabiden odolekoa, hilen artetik biztua; hau da nire Ebanjelioa. Horregatik nago neketan, gaizkile bat bezala giltzapean erortzeraino. Baina, Jaunaren hitza ez dago giltzapetua. Horregatik daramat nik guztia aukeratuen onerako, Kristok betiko aintzarekin ematen duen salbamena horiek ere irits dezaten.

Benetako hitza:

Harekin hiltzen bagara,
bizi ere, Harekin biziko gara;
nekeetan irauten badugu,
errege izango gara Harekin;
ukatzen badugu,
Hark ere ukatu egingo gaitu;
gu leialak ez bagara,
beti leial izango da Hura;
ez baitezake bere burua uka.

EBANJELIOA: Lk 17, 11-19

Aleluia: 1 Ts 5, 18

R/. Aleluia.

V/. Eman eskerrak beti;
hau da zuentzako Jaungoikoaren nahia
Kristo Jesusengan. R/.

*Ez al da izan atzerritar hau besterik,
itzuli eta Jaungoikoa goratzeko?*

Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik

Aldi hartan, Jesus Jerusalem bidean zihoan, Samaria eta Galilea artetik. Herriska batean sartzetakoan, hamar legenardun atera zitzaizkion bidera eta, urruti geldituta, deiadarka esaten zioten: «Jesus, Maisu, erruki zakizkigu!» Jesusek ikusi zituenean, esan zien: «Zoazte, eta agertu apaizengana». Bidean zihoazela, garbi gelditu ziren.

Haietako bat, bere burua sendaturik ikusi zuenean, itzuli egin zen, oiuhu handiz Jaungoikoa gostosten zuela; eta Jesusen oinetan ahozpeztu eta eskerrak ematen zizkion. Eta hau samariarra zen.

Jesusek esan zuen: «Ez al dira hamarrak garbitu? Non dira beste bederatzia? Ez al da izan atzerritar hau besterik, itzuli eta Jaungoikoa goratzeko?» Eta sendatuari esan zion: «Jaiki zaitez, eta zoaz. Zeure sinesmenak sendatu zaitu».

Oparigaien gainekoa

Onar, Jauna, zeure fededunen eskariak eta eskaintzak;
maitasunez ospatzen dugun Eukaristia honek
eraman gaitzala zeruko zorionera.

Jesu Kristo.

Jaunartze ondorengoa

Gure Jainko handia,
apalik eskatzen dizugu,
zeure Semearen gorputz-odol santuez janaritu gaituzunok
Berarekin bat egin gaitzazula zure jainkotasunean.
Jesu Kristo.